



Kredituen krisia. 'Sub prime' hipoteken hondoratzeak agerian utzi ditu finantza munduaren ahuldadeak, eta ekonomia osoa arriskuan jarri dute. Irudian, Northern Rockeko bezeroak dirua ateratzen. ANDY RAIN / EFE

KEZKAK ILARAN

Aberastasunaren banaketan arazoak desagertu ez diren arren, 2007 urte ona izan da makroekonomikoki. Baina AEBetako hipoteken krisia, inflazioaren gorakada eta deslokalizazioak kezka iturri oparo izan dira.

// Iker Aranburu

aspaldi kaxoi batean sartuta zegoen kontzeptua itzuli da aurten euskal ekonomiara: krisi ekonomikoa. Datu makroekonomiko onek halakorik ez dagoela diote, baina udaz geroztik finantza mundua astindu duen kredituen krisiak eta azken hilabeteotako elikagaien prezio igoera handiek bestelakorik iradokitzen diete herritarrei.

2007ko edalontzia erdi beteak ikusten duenetakoa da Mikel Navarro Deustuko unibertsitateko Ekonomia katedraduna. «Euskal Autonomia Erkidegoan 2007an ekonomiak bi marka hautsi ditu: industrian, 250.000 enplegutara iritsi gara; eta ekonomia osoan, milioi batera. Sekula ez dugu horrenbeste lanpostu izan gure historian. Kopuru harrigarri horietaz, ordea, ez dirudi ia inor ohartu denik. Eta egia esan, gutxitan izango dugu denok (agintariek, enpresaburuek, sindikatuek...) horrelako lortu kolektiboetara buruz ospatzeko adina arrazoi».

Langabeziaren atzerakada nabarmendu du Mikel Zurbano EHUKo Ekonomia Aplikatuko Saileko zuzendariak. INEMen datuen arabera, azaroan 95.200 lagun zeu-

den lanik gabe Hego Euskal Herrian, duela urtebete baino mila gutxiago. INEk 77.000 zenbatu zituen hirugarren hiruhilekoan —iaz baino %4 gutxiago— eta 30.000 baizik ez Eustatek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan —biztanleria aktiboaren %3,1 eta iaz baino %15 gutxiago—.

Datuak datu, langabezia jaitsei dela argi dago, baina murrizketa horren «beste aurpegia» ez du hain gustuko Zurbanok. «Sortzen ari den enpleguaren kalitateakaskarra da. Behin-behinekotasunaren tasa eta soldatak oso urrun daude hurbileko herrietakoetatik».

Gai horretan sakondu du Yolanda Jubeto EHUKo Ekonomia Aplikatuko irakasleak. Gizartea «polarizatzen» ari dela uste du, eta oso kezkatuta dago, bere iritziz, pobrezia hedatzen ari delako. «Pobrezia erlatiboan bizi direnak EAEn %20 dira, eta Nafarroan %12. Guztira, 450.000 pertsona baino gehiagok batez besteko irabazien azpitik bizi behar dute, eta hor bai pentsiodunak zein lan prekarioa dutenak sartzen dira». Pobrezia horren aurrean sentsibilitate gutxi ikusten du: «Politikariek eta administrazioiko goi-karguak urtero beren soldatak igotzen dituzte».

Mozkinen banaketaz irakurketa kritikoa egin du Henrike Galartza NUPeko Ekonomia irakasleak

ere. «Joan den egunean bankuek iragarri zuten iaz baino %25 gehiago irabazi zutela, baina nire nomina %1,8 baizik ez da igo! Biztanleen erdiek arazoak dituzte hilabetea bukatzeko». Haren iritziz azken urteotan aukera galdu da ekonomiaren hazkundera gizaratearen ongizatera bideratzeko. «Mozkinak eta teknologia goratzen dira, baina zer dira horiek pertsonen nahiak itota agertzen badira?».

«Sekula ez dugu horrenbeste lanpostu izan gure historian, baina ez dirudi inor ohartu denik»

MIKEL NAVARRO
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO KATEDRADUNA

«Pobrezia erlatiboan bizi direnak EAEn %20 dira, eta %12 Nafarroan. Guztira, 450.000 baino gehiago»

YOLANDA JUBETO
EHU-KO EKONOMIA APLIKATUKO IRAKASLEA

«Mozkinak eta teknologia goratzen dira, baina zer dira horiek herritarren nahiak itota badira?»

HENRIKE GALARTZA
NUP-eko EKONOMIA IRAKASLEA

«Burtsak eta makromagnituden zifrek estaltzen dituzten errealitateak» nabarmendu nahi izan ditu Joseba Garmendia EHUKo Enpresa Ikasketetako irakasleak. Hala nola gastu soziala «Europako mailarik baxuenetan» dagoela eta OCDEren pobrezia-aren definizioa aplikatuz gero Euskal Herrian 890.000 lagun daudela pobrezia-aren mugatik behera.

Zerga erreformak

Hego Euskal Herrian egindako zerga erreformek —errenta zerga-rena eta sozietateen gainekoa— aberastasunaren banaketan «atzerapausoak» ekarri dituztela uste du Garmendiak, eta ados dago Zurbano: «Erreformak atzerakorra dira gehien dutenak gutxiago ordainduko dutelako datorren urtetik aurrera, bi zergatako tasak jaitziko baitira. PFEZri dagokionez, gehien dutenen tasa are gehiago jaitziko da, eta kapitalaren errentak dituztenen tasa behetik berdinduko da. Elkarteen gaineko Zergari dagokionez, tasaren jaitziera orokorrak kapital errentak egingo duten ekarpen fiskala are gehiago gutxituko du». Zerga jaitziera bi ondorio ikusten dizkio. Batetik, Euskal Herriko presio fiskala lehendik Europaren aldean urrun bazegoen, datorren urtetik aurrera, are urrunago egongo da. Eta, bestetik, «datorren urteko aurrekontuetan diru gutxiago» izango da.

Enpresak eta lanpostuak atze-

(HURRENGO ORRIALDEAN JARRAITZEN DU)

egitura

2007ko abenduaren 30a
185. zenbakia
ekonomia@berria.info